

**Alkatearen ebazpena, 2023/1170 zenbakiduna, 2023ko ekainaren 20koa, Antxoko barrutiari dagokion lurralde-eremuan zinegotzi bati eskumenak eskuordetzeari buruzkoa :**

Kontuan hartuta Udal Erregelamendu Organikoaren 4. artikuluan, Toki Erakundeen Antolamendu eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Dekretuaren 43.5.c) eta 44. artikuluetan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 27. artikuluan ezarritakoa, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Honako eskumen hauek Mikel Gotzon García Peñil zinegotziari eskuordetzea Antxoko barrutiari dagokion lurralde-eremuan:

- Barrutian egunero sortzen diren arazoen berri jasotzea, eta horiek Udalaren antolamenduaren barruan bideratzea.

- Barrutiko Jai Batzordeko buru eta dinamizatzaile izatea, eta gastuak Udalaren aurrean justifikatzeko ardura izatea.

- Alkatearekin batera, barrutian egiten diren ekitaldi publikoen buru izatea.

Bigarrena.- Ezartzea eskumenen eskuordetze honek dekretu honen egunaren biharamunetik aurrera izango dituela ondorioak. Nolanahi ere, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean nahitaez argitaratu beharko da.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-oholean eta Udalaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen berri emango zaio Udalbatzari, egiten den lehenengo bilkura.

**Resolución del alcalde nº 1170/2023, de 20 de junio de 2023, sobre delegación de facultades en un concejal en el ámbito territorial correspondiente al distrito de Antxo:**

Considerando lo previsto en el artículo 4 del Reglamento Orgánico Municipal y el artículo 43.5.c) y 44 del Decreto 2568/1.986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Entidades Locales, y el artículo 27 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi,

#### RESUELVO

Primero.- Delegar las siguientes facultades en el concejal Mikel Gotzon García Peñil en el ámbito territorial correspondiente al distrito de Antxo:

- Recoger la problemática diaria que surja en el distrito y encauzarla dentro de la organización municipal del Ayuntamiento.

- Presidir y dinamizar la Comisión de Fiestas del distrito, siendo responsable de la justificación de los gastos ante el Ayuntamiento.

- Presidir juntamente con el alcalde los actos públicos que se celebren en el distrito.

Segundo.- Establecer que la presente delegación de atribuciones surtirá efecto desde el día siguiente al de la fecha del presente decreto, sin perjuicio de su preceptiva publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Tercero.- Ordenar la publicación de la presente resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la web municipal.

Cuarto.- Indicar que de la presente resolución se dará cuenta al Pleno en la primera sesión que éste celebre con posterioridad a esta fecha.

Pasaia, 2023ko ekainaren 22an / Pasaia, 22 de junio de 2023

IZPTA. / FDO. TEO ALBERRO BILBAO

ALKATEA / EL ALCALDE

IRAGARKI-TAULA ETA WEB ORRIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUe6b1e218-ecfd-450b-816a-d3492cefcb**

*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:*

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410>

*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410>